# EUSKAL-AMAK ASABARI

(NEURE ARREBA MAITE KARMENERI DONKITUA)

I

B iztu zaiteze, asabak, astindu zeuron autsak,
I agi danok obitik, begitu lurrera.. .
Z auriz beterik dagoz Euskal-Aman gorputzak,
K atez inguraturik burutik oiñera.
A ra or Ebrotik onuntz begitu zer dagoan.. .
I llik dagoz tamalez Euskeldun Legeak,
A rnaza azkenengoak emongo dauz beiñgoan
a Z chiñako usadio errurik bageak.
G A ldu ziran aizeaz baturik *irrintziak,*
a B urtu dira anchiña lege-zarren maiak;
g A ztelar egiñ dira *Euskeldunen* jantziak,
e R derai ospatuten iakoz gure jaiak.
A R galik ikusten da Euskadin sinizmena,
l O di sendoa zana zuron egunetan;
n A ztau da erdaldunagaz euskalduri abizena,
ar G irik zana bizi gizaldi zarretan.
Ir I igi iake atea berbaldi sazkelari,
za B aldurik Aitorren izketa garbia
u K ullu askotan iako gaur opa Euskereari
bi Z i laburra, illtea, baita bere obia.
¡Ez K ara gu orraitiño lotzaz bera jausiten,
ik U sirik gure erruz Amak ill gurarik
Am A k ba ill gura dabe eztakelako ikusten
gug A n erri-naitasun derichon gauzarik?
Eto R zaiteze, acabak, illik or zagozenak,
mak A len odol otza gogoz biztutera.
Ara B a, Gipuzkua ta Euskaldun Ama danak
esk A tu egiten dabe zuron etorrera.

## II

AzaLdu beite laster Lekobiden besoa
AstArloan buruaz laztanez baturik,
garBai bagako euskeraz zarren Lege gozoa
zerUan ipiñteko izar-ganeturik.
EtoRri, etorri, zurok, asaba euskalzaleak,
aunDeitutera Aitorren odol ondakiña,
bizIaz betetara zuron jarraitzalleak,
biZtu deiten barriro gure legegiña.
ApUrtu baiña leendik erderako bideak,
zaBaldu biotzetan erri-naitasuna,
agErtu gure artean gizarte ama-zaleak,
loRtu beie gure Amak atzoko osasuna.
OdOla ezarri sendo euskaldun zain otzari,
amAitu erdaldunaren odol-etorria;
sEmerik ez eskatu erdeldun erriari,
EUadi izango bada semez ugaria.
ASi beite barriro zurian gizaldia,
UKutu barik Ebrok dakazan egunak;
gAba illun onen ordez betor egun argia,
aLaitu bei Euskadi eguzki argidunak.
Asaba omengarriak, betoz zuron arnazak,
Maite dozuzan Amak bizira ekarteko....
Ariñ, asabak, ona..kendu danori arantzak,
Kate gogorrak ausi ta ausi, bai, betiko...

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.